

## VI. MBA EXECUTIVEaren amaiera ekitaldia Gipuzkoako Bazkudearen eta Mondragon Unibertsitatearen eskutik

- *Pedro Esnaola, Gipuzkoako Bazkudeko Presidente eta Vicente Atxa, Mondragon Unibertsitateko Errektorea izango dira ekitaldiaren buru. Titulu banaketa gaur arratsaldean egingo da Gipuzkoako Bazkudean.*
- *Executive MBA 520 orduz osatu da, urte bete iraun du eta eskolak Gipuzkoako Bazkudean eman dira.*

**Donostia - 2016ko Maiatzak 12a** - Gipuzkoako Bazkudeak eta Mondragon Unibertsitateak MBA Executivearen VI. ekitaldi amaiera burutuko dute gaur, Gipuzkoako Bazkudean. Masterra 2009an jarri zuten martxan aipatutako bi entitate hauek. Pedro Esnaola, Gipuzkoako Bazkudeko Presidente eta Vicente Atxa, Mondragon Unibertsitateko Errektorea arduratuko dira Tituluak banatzeaz. Kurtsoa gainditu duten ikaslek jasoko dute titulua.

Masterra lortu duten ikasleak 31 eta 49 urte bitartekoak dira. Industria mailako enpresetan eta zerbitzu enpresetan aritzen dira batibat eta ardura handiko postutan burutzen dute euren lana. Guztiek esperientzi profesional zabala dute eta prestakuntza akademiko diferentea jaso dute Industria mailako Ingenieritzan, Arkitekturan eta Enpresa kudeaketan eta zuzendaritzan besteak beste.

Masterran parte hartu duten ikasleek, Finantza, Estrategia, Marketinga, Eragiketak, Pertsonak... hau da, enpresaren alor funtzionalak ikasteko eskolak jaso dituzte, eta era berean eurak enpresak zuzentzeko dituzten abileziak landu dituzte. Une oro diziplina anitzeko irakasleak izan dituzte alboan, unibertsitateko, aholkularitzako eta enpresetako esperientziak eta ikuspuntuak konbinatuz.

### Helburuak

Executive MBAk enpresen ikuspegi osoa erakustea eta arlo eraginkorrenak nola funtzionatzen duten azaltzea du helburu. Baita, berrikuntza bultzatzea eta norbanakoaren izaera pertsonala eta profesionala aldatzea lidergoa garatu ahal izateko, bakoitzak dituen gaitasunak eta abileziak kontutan hartuz. MBA Executiveren beste helburuetako bat erakundearen funtzio ezberdinak kudeatzeko aukera ematen duten kontzeptuak indartzea eta eguneratzea da, kultura eta nazioarteko testuinguru anitzak kontutan hartuz.

## Balorazio baikorra

Gipuzkoako Bazkondeak eta Mondragon Unibertsitateak elkarrekin antolatzen duten seigarren master honen balorazioa baikorra izan da. Elkarrekin lan egiten jarraitzea da bi entitate hauen helburua, enpresetako profesionalen heziketaren bitartez Gipuzkoako enpresak indartzeko. Zazpigarren edizioa martxan da une honetan.

Horrez gain, Gipuzkoako Bazkondeak eta Mondragon Unibertsitateak elkarrekin lan egiteko akordioa berritu dute eta urritik aurrera MBA EXECUTIVEaren zortzigarren edizioa jarriko dute martxan, enpresetako zuzendarien eta profesionalen artean oso ezaguna den graduondoa. Hilaren 24ean, VIII. edizioaren inguruko informazio saio bat antolatuko da, eta izen emateko epea irekiko da. 2016-2017 kurtsoan izen emateko epea, alegia.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:**

Irene Bengoetxea

[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)

943 000 310 / 688884347